

BEIAK

Ezin dezakegu jakin, ziurtasun ziurrez bederen, noizti-koak diran gure baserrietan ditugun etxe abereak. Euskal lur gainean aski samar arpe ta leiza zuloetan bizi ziralarik ere, eiza ir ta jan ez-ezik., ezi ta zaitu ere egingo zituzten zalantzik gabe. Geroago, nekazaritza ugaldu zanean, bei, txekoa te idiak izango zituzten noski baño noskiago, naiz aragitarako naiz te lanerako gure asaba zarrak erabilli zituztenak. Arrezkero guztian ebelgorriak dira euskal baserrietan.

Doiñu: «Salbatore gora da...»

Ez dut korte bete bei, bostekin ik naiko;
eurok antz-eder, aski ditut esnerako:
esne gurintsua bai dala sekulako
jaki bizi-erazle da goi-baserrirako.

Len txekorrak nituen urtean sei azten,
orain esnera nago bei auekin zuzen:
urbiltxo dut erria, an esnea saltzen,
irabazi polita didate eskuratzen.

Kanora-antz bikaiña dute gure beiak,
axolaz bazkaturik baitira guztiak,
belar-pentsuz dauzkate aska ta gaindiak
eguerdi, gau ta goiz ederki orniak.

Berriak atzeinen naiz zarrak aldatzean,
zuurki jokatu bear saleros-uncen:
beirik aundienak ez izan geienean
ugari ta joritsu esnea jeiztean.

Nola daiteke igarri beia dan esnetsu?
Beiak, nolako enda alako kira du,
bainā etzaitetz ortan geiegi fidatu,
bei-enda askok errez iruzurtzen zaitu.

Bei guri biribilla ez duzu esnekoi,
orri jaten dun oro aragi eiten oi,
esnetsuari soiña ikusten zaio doi,
gantz-bilgorrik ez dauka, baizik esne-idoi (1).

Nere bost beiak guztiz dirade bakanak:
begiratu biziko, xamur ta otzanak,
ondora urbiltzen aise uzten didatenak,
belaun-beera buztan mee luzca dutenak.

Gozo, zume (2) xamarra daukate azala,
lasaia, liñabera bai litzan bezala.
Bular-estuak obe sarritan dirala?
Sendoago deritzait bularpe zabala.

Errape txit borobil egoki egiñak
ditut nik erazteko arras atsegiñak;
erro azalak bear dute izan biguiñak,
sabel alde doazten aundi urdii-iak.

Bei esnetsuen iztar ingurua oro,
ille txikiz betea bear du izan oso;
esne gabeak orde ez du onelako,
ille luze zakarra dizu eskeiñiko.

Bei onak bear ditu txuri motz adarrak,
kozkor gaberik erro ta titi muturrak,
ille goxoz beterik barrengo iztarrak,
olako beiak ez dira esne iturri txarrak.

(1) Potzu.

(2) Bigun.

Ene bost bei zangarrak, ene irabazpide,
Txuri, Gorri, Apala, Nabar ta Gorride,
zuekin aspaldian naiz txit adiskide,
zuen begitua zait ziñetan pozbide.

Udazken eguerdiz zelaian biribil.
nolako itxura duten ene beiak bipil!
Eguzkiak birea zeruan darabil,
gure bost beiak poza bizkarrean zintzil.

